

BERRIGARA

86. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, uztailak 4



Jubilaziorik ez...

Kotxe beteteranoak



KIA KIA MOTORS

*Ekainetik aurrera, Deba Garaiko
zerbitzu ofiziala ARRASATEN duzu*



HONDA
AUTOMOBILAK

M MENDIOLA

Araba etorbidea, ARRASATE
Tf. 79 20 30



VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK

Pintxo bereziak, kazuelitak, bokadiloak, plater konbinatuak...
edota kopatxo bat lagun artean hartu nahi baduzu, zatoz Kayak tabernara.
Berriz zabaldu dugu Matxiategi 3 behean.

Telefonoz ere hartuko dizugu enkargua. Tf. 76 70 11



JABE BERRIAK

KAYAK

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Inaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketa:

Esteban Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.500 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ANDONI ETXEBERRIA

Jarduneko Lehendakaria

- Atzo, eguena, egitekoa zen Jarduneko Batzar Orokorrean ze aztertu zen?

- Batzar Orokorra lehenago egitekoa zen, baina atzeratu egin da eta aste honetan egin dugu. Iaz egindakoen balorazioa eta aurtengo egitasmoak azaldu zituzten Jarduneko talde bakoitzeko ordezkariak. Era berean, diru kontuen berri ere eman genuen.

- Aurtengo Batzar Orokorrean, Jarduneko egoitza berriari buruz ere berba egin behar zen.

- Bai, asmoa lehen Ariznoa diskoteka egon zen lekolean Jarduneko egoitza berria jartzea da. Bertan, Jarduneko bulegoa, Berrigarako erredakzioa, artxiboak eta bilera



gelak jarriko genituzke. Bestalde, taberna edo kafe-antzokia ere zabalduko genuke. Asmo horien berri izateko Jarduneko bazkideei informazioa banatu genien orain dela pare bat aste eta egueneko batzarrean proiektua aztertu eta eztabaidatzen zen bazkideen artean. Pausoak eman aurretik ondo aztertu behar da proiektua.

“Jarduneko egoitza berriaren proiektua bazkideekin sakon eztabaidatu nahi dugu”

I T U R R I O N E T I K

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikokoak Italiara abuztuan

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko kideek, Orkestaren 10. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, ikas bidaia egingo dute Italiara, datorren abuztuaren 3tik 14ra bitartean. Guztira, 53 lagun abiatuko dira autobusez Italiara eta, besteak beste, Venecia, Pisa, Florencia, Verona, Milan eta Erroma bisitatuko dituzte. Bidaia ordaindu ahal izateko hainbat emanaldi eskaini ditu Orkestak azken bi urteetan eta orain urtebete pasatxo eskeinitako *El rey leon* ikuskizunean jasotako dirua ere bidaia honetarako bideratu zen. Bidaiak lau milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka.

E S A N
D U T E

“Tokian tokiko harrera desberdina da, jendearen ohitura eta bizierak agerian gelditzen direlarik. Hizkuntza aldetik, adibidez, alde handiak nabaritzen ditugu. Kanpora begira hizkuntza moldatu beharra badugu, horrek gugan eragina izaten du, eta baliteke funtzioa bera ere zerbait aldatzea. Orain *Ubu Babel* lanarekin jarraitzeko asmoa daukagu. Proiektu ugari ditugu, ideiak ere asko daude, baina ezer konkreturik ez. Egia esan, zerbait berria egiten duzunean, hustu egiten zara. Oso konplexua da antzerkiaren mundua; ongi badoa, ezin hobeto, hala ere inoiz ezin dugu jakin zer gertatuko den.

Gero eta profesionalizatuagoa dago dena. Antzerki enpresa elkarteak eratzen dira; modu batez, taldea segurtatzeko tendentzia dago. Merkatua ere internazionalagoa da, eta horrek lan eremua zabaltzen du; horri baikortasunez begiratzen diogu”

KARLOS ODRIÓZOLA

Taun-Taun taldekoa
EGIN

**THE RELIC**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**PASAJES**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

▼▼ **Rock kontzertu**
bikainak izango dira Elgetan astebukaeran. Gaur gauerdian Këshbad, Txatunba Benbe eta Quatro Clavos taldeak izango dira Gaztetxean eta bihar zapatua, gaueko ordubatean, Ttak eta Deskontrol taldeek joko dute Gaztetxean bertan. Bestalde, Egan eta Drindots taldeek alaituko dituzte gaur eta biharko dantzaldiak Elgetako Plazan.

**Zinea**

▼▼ **Peter Hyams**
zuzendariak *thriller* bat errodatu du oraingoan. *Margo Green* biologoak (**Penelope Ann Miller**) Historia Naturaleko Museo batean lan egiten du eta bertan hilketa beldurgarri batzuk gertatu ondoren, *Vicent D'Acosta* (**Tom Sizemore**) poliziaren laguntza jasoko du. Biek beren indarrak batuko dituzte hiltzailea harrapatzeko baina sorpresa bat baino gehiago aurkituko dute bidean...

▼▼ *Salto al vacio* filmearen arrakastaren ondoren, **Daniel Calparsoro** zuzendari donostiarrak **Almodovar**-en *El deseo* produktora ospetsuaren laguntza izan du bere bigarren filme honetan. Lapurretan aritzen den *Gabi* gazteak (**Najwa Nimri**) etxeko garbiketak egiten dituen emakume alkoholiko bat (**Charo Lopez**) zulotik atera nahi izango du...

Deiak

▼ **Txirrindulari irteera.** Bergarako Txirrindulari Elkarteak datoren zapatuan, hilak 12, Elantxobera irteera antolatu du. Irteera goizeko 8:30etan egingo da Plazatik eta 75 Km.ko ibilbidea bete ondoren, itzulera autobusez egingo da. Izen-ematea Txirrindulari Elkarte-an, Plazan, bihar larunbata 12etatik ordubatera edo astelehenean 7etatik Setara.

▼ **Rock kontzertua.** *Piperrak*, *Salvate si puedes* eta *Deskontrol* taldeek kontzertua eskainiko dute zapatuan 22:30etan Jam aretoan. Sarrerak 1.000 pezetan salgai.


▼ **Mendi trabiesia.** Pol-Pol Mendizale taldeak mendi trabiesia antolatu du gaztetxoentzat uztailaren 12 eta 13rako. Izen-ematea Pol-Polen.

Ogia

▼ **Domeka 6:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 4:** Camacho.
- ▼ **Zapatua 5:** Puy.
- ▼ **Domeka 6:** Puy.
- ▼ **Astelehena 7:** Guallar.
- ▼ **Martitzena 8:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 9:** Mozos.
- ▼ **Eguena 10:** Camacho.

MUJIKA  UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

San Martzialak

Ehundaka bergarar elkartuko dira domekan San Martzialen

San Pedro jaien ostean, San Martzialak ospatuko dira astebukaera honean Bergaran. Bihar zapatua, Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzainero taldeak lagunduta, buruhandi eta erraldoien kalejira egingo da herri erdian eta ondoren bonba japoniarrak jaurtiko dira Plazan. Domekan, berriz, ehundaka bergarar bilduko da San Martzialen eta ekitaldiak goizean goizetik hasiko dira; goizeko 9:15etan alborada izango da, Erletxo taldeko dultzaineroak, Zumarragako trikitilariak, Los Incansablesekin eta Udal Txistulari Bandarekin. Jarraian, 10etan, ohizko gurdi igorriari hasiera emango zaio eta 11etan Meza Nagusia ospatuko da.

Eguerdian, Xamatzek emanaldia eskeiniko du ermitaren aurreko kanpan eta jarraian, 12:30etan, aspaldiko tradizioari jarraituz, aureskua dantzatuko da. Dantzen ostean, Narbaiza eta Egileor bertsolarien saioa izango da eta 13:30etan nahi duten guztiek abestiak kantatzeko aukera izango dute kantina ondoan. Aurten Senideak elkarreak izango du



Eguerdia partean ohizko aureskua dantzatuko da.

San Martzialeko kantinaren ardura. Kanpa ondoan ohizko ardo barrika (100 litrokoa) jarriko da.

Jolasak arratsaldean

Udalak 211 mahai alokatu ditu aurten San Martzial egunerako eta horrez gain herriko koadrilek mahai mordo bat jarri di-

tuzte bertan bazkaltzeko. Domekan, nagusiek bazkalosteko tertulia egiten duten bitartean, arratsaldeko lau t'erdietatik aurrera, Aske atsedean taldearen eskutik, haurrentzako jokoak egongo dira. Ondoren, 6etan, herri jolasei hasiera emango zaie (bolatokia ere egun osoan izango da zabalik). Sokati-

ra jokurako sei laguneko taldeak osatu beharko dira eta emakume zein gizonen kategorietan gehienez zortzi taldek parte hartu ahal izango dute. Izen-ematea txapelketa hasi baino orduerdi lehenago egin beharko da, Bittor Alberdi "Satorretxe"ri izena emanez. Jarraian, txinga proba jokatuko da.

Jolasak amaitu ondoren, Aranzabal Orkestak alaitutako erromeria izango da eta gaueko 9etako txupinazoarekin jeitsiera hasiko da.

Udalak 221 mahai alokatu ditu aurtengo San Martzialetarako

Bolintxo
OKINDEGIA
domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Alde hemendik

Aste honetan Joxe Migel Gaztelu bergarra eta beste hiru euskal herritarren atxiloketa- ren inguruko operazio polizialaren aurrean, Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak, honako hau salatu nahi du:

1. Antzuola, Arrasate, Bergara eta Oñatiko herrietako okupazio poliziala (500 Guardia Zibil).

2. Atxiloketa burutzerakoan, Guardia Zibila- ren jarrera: testigurik gabeko atxiloketak, kaptxaturik, atek apurtuz, senitartekoak enkaionatuz, mehatxuak, lapurketak...

3. Atxilotuen inkomunikazioa bi egun gehiagoz (bost egun denera) luzatzeko Baltasar Garzon epaile espainiarrak emandako baime- na.

4. Inkomunikazioaren inpunitateaz baliatuz, Guardia Zibila- ren eskutan gure eskualdeko lau bizilagunek jaso ditzaketan tratu txar- rak.

Detenituak askatu! Euskal presoak Euskal Herrira!!

BERGARAKO AMNISTIAREN
ALDEKO KOMITEA

Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan

Errepideen plangintza orokorrak (1993-2004) lehentasuna ematen zion Maltzaga-Urbina errepide azkarraren eraikuntzari N-1aren aurrean (Etxegarateko bikoizketarekin) hasiera batean, azkenengo hau 1998rako egitea pentsatua zegoelarik.

N-1a pasatzen den herrietan sarturiko alegazio eta presioak zirela medio (Goierriko bailara eta sakana Nafarroan gehienbat), errepideen plangintza orokorreko komisioak bi obra hauek zazpi urteko epean egitea erabaki zuten. Horrela bi errepide hauek 2000 urterako bukatuak egongo lirateke.

Errepideen plangintza orokorrak Etxegarateko bikoizketa atzeratzeko eraman zuten estrategia, trafiko europearra desbideratzea besterik ez zen izan, eta ez bakarrik A-8 autopistatik (Bilbo-Behobia) baizik eta Maltzaga-Urbina- tik (orain Eibar-Gasteiz) ere. Honela, hiru nazioarteko ardatzen aurrean aurkituko ginatke. Eibar-Gasteiz autopista honi errentagarritasun behartua bilatzeko era bat besterik ez da.

Maltzaga-Urbina autopista proiektu zahar bat besterik ez da, 70eko azken urteetako hain zuzen., eta orduz geroztik irudi fantasmagoriko bat besterik ez da izan. Denbora epe motz batean eta zentzugabeko eztabaida baten ondorioz, berriro ere mahai gainean ipini dute.

Autopista Deba bailarako bakarrik eraikitzen badute, Gasteiz eta meseta espainole- runtz irteera emateko, argi geratzen dena zera da, ez dela errentagarria.

Trafikoaren planoetan azaltzen diren datuak aztertzen baditugu, Deba bailararenak orokorrean altuak direla ikusten dugu, baina trafiko zonalak dira. Deba bailarako trafikoaren kopurua zenbait tokitan oso altua izanik ere (16.000 San Andresen/Arrasate), garbi dagoena zera da: barneko trafikoa dela, hau da, bailarako herrian arteko mugimenduak direla. Honela Arlabango gainetik (Gatzagako errepide- dea kontutan hartuta) 5.000 kotxe besterik ez dira pasatzen. Kopuru honek ez du autopista

baten eraikuntza justifikatzen.

Honek suposatzen duena zera da, Deba bailarako komunikazioek hobekuntza sakonak behar dituztela baina bertako hobekuntzak, eta ez autopista baten beharra. Hau guztia zentzugabea iruditzen zaigu eta horregatik arazo honi aurre egin behar diogu.

Eibar-Gasteiz suposatuko duena aztertu ondoren, Bilbo-Behobia (A-8) autopistaren prorrogaren luzapena ezin dugu alde batera utzi. Eibar-Gasteiz autopista eraiki ahal izateko duten finantziabide bakarra Bilbo-Behobia au- topistaren peajea 2003 urtetik aurrera (2015-20...) luzatzea da. Publikoki oraindik erreko- zitu ez duten arren hori da esku artean duten asmo bakarra. Nahitanahiezkoa dela uste du- gu peajea lehenbailehen liberalizatzea, horrela aspaldiko beharrizan bat beteko litzateke.

Gure planteamendua garbia da, gure bailarako errepideak goitik behera hobetu behar dira, hobekuntza sakon hauekin konponduko da barne trafikoaren arazoa.

Autopistaren aurka alternatiba zehatza planteatzen dugu: Leintz-Gatzaga/Landako biztanleek landutako proposamena, eta bere xedea hori da: hobekuntza sakonak egitea.

Eibar-Gasteiz autopistari ez! Etxegarateko bikoizketa orain! A-8 autopistaren peajea be- rehala liberalizatu!

GATZAGA/LANDA PROPOSAMENAREN
ALDEKO TALDEA

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Bi antzuolar eta bergarar bat epaituak

Iñaki Arenaza bergararra eta Juan Jose Aranburu eta Patxi Olabarria antzuolarrak astelehenean epaitu zituzten Madrilako Entzutegi Nazionalen ETako kolaboratzaile izatearen akusaziopean. Hirurak 1995eko urrian atxilotu zituen Ertzaintzak, Oñatiko beste bi gazterekin batera, eta bi urte hauetan gartzelan egon dira. Fiskalak eta abokatuak zigorra negoziatu ondoren, Juan Joserentzat 8 urteko gartzela zigorra eta Iñaki eta Patxirentzat 6 urtekoa eskatu zituen fiskalak.

Kiroldegia itxita

Domeka arratsaldean, San Martzialeko erromeria dela eta, Kiroldegia itxita egongo da.

HILDAKOAK

- Alfonso Larrañaga Zenitagoia**
Uztailak 2, 48 urte.
- Migel Larrañaga Enekotegi**
Uztailak 2, 81 urte.
- Mariana Igartua Arrese**
Uztailak 2, 93 urte.

JAIOTAKOAK

- Christian Rodriguez Irizar**
Ekainak 18.
- Iñazio Arriola Alvarez**
Ekainak 23.
- Jone Olabarria Franco**
Ekainak 24.
- Josu Zalakain Manso**
Uztailak 2.



Hainbat herritar biltzen dira ekimenean.

Presoak Euskal Herrira ekartzeko ekimen herritarra aurkeztu da

“Bergarako Presoak Euskal Herrira” ekimenak azken hilabeteetan egin-dako lanaren eta etorkizunerako asmoen berri eman zuen joan zen zapatuko prentsaurrekoan. Taldea orain dela zazpi hilabete sortu bazen ere, prentsaurrekoa aprobe-txatu zuten taldea herriaren aurrean aurkezteko. “Presoak eta hauen senide-ek urteak daramatzate gartzelan daudenen esku-bideen alde borrokan, bai-na gizartea ere borroka horretan murgiltzea beharrez-koa da. Horregatik elkartu gara, presoek eskubideak errespeta daitezela lortzeko

zerbait egin dezakegula eta egin beharra dugula pentsatzen dugulako. Horretan datza gure lana, herri-rik, kaletik eta modu eta maila ezberdinetan, jende-ak, indarra egitea eta indar horiek elkartzea, Euskal presoak Euskal Herriratuak izan daitezen” esan zuen Amaia Agirrek, taldearen bozeramaleak.

Taldearen helburu nagusia legea errespeta da-dila eta gartzelan preso dauden euskal herritarren eskubideak errespetatzea dela esan zuten eta hiru helburu zehatz aipatu zituzten: euskal presoak Euskal Herriratzea, kon-

denaren hiru laurdenak beteta dituztenak kalera-tzea eta gaisotasun sen-daezinak dituztenak kale-ratzea. Helburu hauen alde lan egiten laguntzeko gonbitea zabaldu zuten.

Bestalde, domekan San Martzialeko erromeria ospatuko dela eta, Presoak Euskal Herrira dioten kamisetak kalera-tuko dituzte eta San Mar-tzialera kamiseta hori jantzita eramatea eskatu zieten herritarrei. Kamise-tak salgai egon dira astean zehar, eta zapatu eguerdi eta iluntzean San Martin plazan erosi ahal izango dira.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

Elgetako jaiak

Elgetan atzo eman zitzaien hasiera Ferixa Nagusiko jaiari. Gaur gaueko 11etan Egan taldearekin dantzaldia izango da eta gauerdian rock kontzertua Gaztetxean. Bihar, zapatua, goizeko 7etan entzierroa izango da, goizeko 11:30etan X. Intxortako Igoera eta 12:30etan txikiteoa Incansablesekin. 15:30etan buruhaundiak eta, ondoren, play back saioa gaztetxo eta haurrentzat. Arratsaldean, txirindulari lasterketa eta zezen txikiak eta pottokak izango dira eta gaueko 11etan Drindots taldeak alaitutako dantzaldia. Gauerdian, osterara, play back saioa eta bolo txapelketa eta ordu batean rock kontzertua gaztetxean. Domekan ganadu feria izango da goizean zehar; 16:30etan, berriz, Ipurua gimnasia erritmiko taldearen erakustaldia, 18:00etan lau t'erdiko pilota txapelketako finalak eta 23:00etan rock kontzertua gaztetxean.

Alkate intsumisoei elkartasuna

Ejertzito espainiarrarekin ez kolaboratzeagatik epaituak izan diren edo izango diren udalerrit intsumisoen alkateei elkartasuna adieraztea erabaki du Bergarako Udaltzako HB eta Eako zinegotziek aurkeztutako mozioa joan zen astean aztertu zen eta EAKo bi zinegotzien botuei esker onartu zen. Plenoan ez ziren izan HBko zinegotziak eta EAJ eta PSE-EEko zinegotziak abstenitu egin ziren.

Danborradako entsaioak

Astelehenean arratsaldeko 7:30etan hasiko dira Santa Marinako jaietako danborradarako entsaioak San Martin ikastetxean. Danborradan parte hartu nahi duten haur guztiak astelehenean bertara agertu daitezke.



Tavesan eta Algodoneran lanpostu berririk sortuko ez dela esan du enpresako buruak.

Tavexeko Bergarako lantegietan inbertsiorik ez da egingo

Enrique Garran Tavexeko presidenteak esan du

Algodonera eta Tavesako lantegietan inbertsiorik ez dela egingo esan du Tavex taldeko zuzendaritzak. Enrique Garran Tavex taldeko presidenteak adierazi duenez, Bergarako lantegiek produkzio ahalmena galdu egingo dute eta ez da lanpostu berririk sortuko. Bestalde, jubilazioak direla eta, lau urteren barruan 60 lanpostu galduko dira Bergarako lantegietan.

Tavex taldeak 4.500 milioi inbertituko ditu datozen bi urteetan eta gehienak Valentzia eta Marrueko lantegietan inbertituko direla esan du Garranek. Tavex taldeak 1.147 milioi pezetako irabaziak izan zituen iaz, baina Bergarako lantegietan 153 milioiko galerak izan ziren 8.300 milioiko fakturazioa izan arren. Datu hauei buruz-

ko eta Tavex taldearen asmoei buruzko azalpenak, Akzionisten Bartzar Orokorrean eman ditu Enrique Garranek.

Algodonera eta Tavesako langileek etorkizun iluna ikusten diete Bergarako lantegiei. LAB, esate baterako, oso arduratuta dago Algodonera eta Tavesaren etorkizunarekin eta "87 egunez greban egon ondoren lortutako emaitza eskasak" kritikatu ditu. Joan zen maiatzaren 13an zuzendaritzaren partetik 1.300 milioi inbertitzeko eta 65 lanpostu berri sortzeko konprometuzua lortu izana, baina negoziazio mahaia apurtu izana kritikatu du LABek.

Tavesa eta Algodonerako langileek, ia hiru hilabate greban egon ondoren, %5,25eko igoera lortu zuten.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Jardunen Komiki Lehiaketako sari banaketa, gaur Gartzelan

Azken edizioetako komiki onenekin aldizkaria egin da

Jardunek antolatutako V. Komiki Lehiaketako sari banaketa gaur, ostirala, arratsaldeko 8etan Gartzela Zaharrean egingo da. Euskal Herri osotik bidalitako komikiak aurkeztu dira lehiaketara, baina gehienak bergararrek egindakoak izan dira. Lehiaketa, adinaren arabera, hiru taldetan banatu da eta honako hauek izan dira sarituak: lehen taldean (12-14 urte bitartekoak), Josean Morlesin gasteiztarra izan da irabazlea; Nadia Morachok eraman du bigarren saria eta Sara Silvak hirugarrena. Hauek biak bergararrak dira. Bigarren taldean (14-18 urte bitartekoak), ostera, Angiozarko Oihan Vegarentzat izan da lehen saria eta bigarren eta hirugarren tokietan Unai Azkarate eta Iban Garcia bergararrak sailkatu dira. Azkenik, hirugarren taldean (18 urtetik gorakoak), Patxi Arzamendi aretxabale-tarra izan da irabazlea eta Iñigo eta Alex Ugalde bigarren geratu dira.

Aurtengo edizioeko epai-mahaia Esteban Lazkanok, Dani Lascurainek eta Eli

Payrosek osatu dute eta euskararen zuzentasuna, argumentuaren originaltasuna eta marrazkien kalitatea hartu dituzte kontutan.

Sari banaketa, esan bezala, gaur iluntzean egingo da Gartzela Zaharrean eta ekitaldian komiki lehiaketako bost edizioetan lehen saria jaso duten komikiak biltzen dituen 66 orrialdeko errebista aurkeztuko da. Aldizkariak Jardun-Komik izena du eta 200 pezetan jarriko da salgai herriko liburutenda eta hainbat tabernatan. Ekitaldia herritar guztietantzat zabalik da.



Justo Garate beka

Bergarako Udalak Justo Garate bekaren 6. edizioa konbokatu du. Beka hau Euskal Herriari dagozkion Soziologia, Historia eta Euskal Filologiaren gaietara zuzenduta dago, baina 1997ko deialdia Filologiari soilik zuzenduta egongo da. Bekaren iraupena 11 hilabetekoa izango da eta ikerketa lana euskaraz egin beharko da. Ikerketa lana originala izan beharko da eta ezin izango da beste edozein bekarekin batera norberegianatu. Bekaren diruzenbatekoa 935.000 pezetakoa izango da. Eskerak Bergarako Udaleko Kultur Zerbitzuan aurkeztu beharko dira irailaren 1etik 30era.

Antzuolako gehigarria

Irailetik aurrera Berrigarren hamabostean behin kaleratuko den Antzuolari buruzko gehigarriaren izena Kontuola izango da. Idolazek, Antzuolako euskara elkarteak, izena asmatzeko lehiaketa antolatu zuen eta Jexux Amasorrainek lehiaketara aurkeztutako izena izan da aukeratua. Antzuolako informazioa jasoko duen lau orrikoan, Marijo Deogracias kazetari antzuolarra arituko da berriemate.

Angiolilloren heriotza

Aurtengo abuztuaren 20an Canovas del Castillo hil zuen Angiolillo anarkistaren heriotzaren 100. urteurrena betetzen da. Hori dela eta, Bergaran gertakari hura nola bizi izan zen dakitenen ahozko testimonioak nahi ditugu. Norbaitek pasarte honi buruz euren guraso edo aitonei entzundakoak kontatu nahi baditu, dei dezala Berrigarara (76 03 97).

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09



**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

**J. Migel Gaztelu
inkomunikatuta**

Ortega Lararen bahi-
ketarekin zerikusia iza-
tearen akusaziopean
atxilotu zituztenen se-
nitartekoeak, atxiloketak
legearen kontrakoak
izan zirela, indarkeria
erabiliz, lekukorik gabe
eta epailearen agindu
ofizial barik egin zirela,
salatu dute. Eguen goi-
zean Itziar Lizarragare-
kin, Jose Migel Gaztelu-
ren emaztearekin, izan
ginen eta oraindik ika-
ratuta zegoen martitzen
gauean bisitakoagatik.
Guardia zibilak etxeko
atea bota eta barrura
sartu ziren. "Oso gogo-
rra izan zen, goizalde-
ko 4ak eta bost minu-
tutan sartu ziren etxe-
an eta zazpiak laur-
den gutxiagora arte
egon ziren. Etxea, ga-
rajea eta ganbara mia-
tu zituzten; semeentza-
ko batez ere oso gogo-
rra izan da". Bi seme
dituzte, Ion (16 urte)
eta Ibai (14); Jose Mige-
lek Fagorren (Arrasa-
ten) lan egiten du.

Lau detenituak Ma-
drilen daude eta dome-
kara arte inkomunikatu-
ta egongo dira. Astean
zehar hainbat protesta
ekitaldi izan dira Berga-
ran eta Antzuolan. Ges-
torek atxiloketen kon-
trako mozioa aurkeztu
dute Udalean.



Orain dela 127 urte egin zen moduan, Bergaran bildu ziren batzarkideak, diputatuak eta zinegotziak.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bergaran bildu ziren eguastenean

Gipuzkoako Batzar
Nagusiak Bergaran bildu
ziren eguastenean, orain
dela 127 urte, 1870. urte-
an, egin zuten moduan.
Goizeko 10:45etan, Victo-
riano Gallastegi Bergara-
ko alkateak, harrera egin
ziren Udaletxeko arkupe-
tan, Esther Larrañaga Ba-
tzar Nagusietako presi-
denteari eta Roman Sudu-
pe diputatu nagusiari. San
Martin plazan, bestalde,
martitzenean atxilotu zu-
ten Jose Migel Gazteluren
eta presoan aldeko en-
kartelada egin zuten 50
bat lagunek.

Harreraren ondoren,
Diputazioko mazeroren la-
guntzaz eta eta Foru Al-
dundiko turutajoleek Gi-
puzkoako himnoa jotzen
zuten bitartean, Udaletxe-
ko Pleno aretora igo ziren
Gipuzkoako batzarkide-
ak, diputatuak eta Berga-
rako Udaleko gobernu
taldeko zinegotziak. Ber-

tan, Musika Eskolako Ka-
mara Taldeak, Alfredo
Gonzalez Chirlaqueren
zuzendaritzapean, Peña-
florida kontearen "Adiyo
Probintziya" zortzikoa es-
kaini zuen.

Victoriano Gallastegi
alkateak ongi etorria eman
zieten batzarkide eta dipu-
tatuari eta, ondoren, hitzal-
dia eskaini zuen. Batzar
Nagusiak Bergaran elkar-
tzearren garrantziari buruz
eta Bergarako herriari bu-
ruz jardun zen alkatea. Jar-
raian, Esther Larrañagak
hartu zuen hitza. Batzar
Nagusietako presidentek
Bergarako herriari eta al-
kateari eskerrak eman ziz-
kien batzarretako plenoa
bertan egiteagatik eta Ber-
garak historian zehar, bai
Diputazioarekin eta baita
Batzarrekin izan duen ha-
rremana azpimarratu zu-
en. Hitzaldiaren ondoren,
alkateak Pili Arinek egin-
dako brontzezko erliebe

banan eman ziren Diputatu
nagusiari eta Batzarretako
presidenteari. Lehenengo-
ari Udaletxea eta San Mar-
tin plazaren irudia eta bes-
teari Agarreko garaixeara-
na.

Hitzaldiak amaitu os-
tean, Batzar Nagusietako
Ohiko Plenoari hasiera
eman zitzaion. Plenoa
amaitu ostean, Musika Es-
kolako Kamara Taldeak,
Miguel Gonzalez Bastida-
ren "Euskal Preludioa",
Alfredo Gonzalez Chirla-
queren "Bergarako ere-
serkia" eta "Agur jaunak"
eskaini zituen.

Plenoa amaitutakoan
Bergarako etxeak eta mo-
numentuak ezagutzeko
bisita gidatu bat egiteko
zen, baina bertan behera
geratu zen. Bestalde, Ple-
noan parte hartu zuten
HBko batzarkideak San
Martin plazan presoan al-
de enkartelada egiten ari-
zirenei bildu zitzaizkien.

Felicitas Cartolini

Nestor Cerparen ama

EPK-PCE alderdiak gonbidatuta, Felicitas Cartolini Limako Japoneko enbaxadaren asaltoan hilik gertatu zen Nestor Cerpa "Evaristo komandantea"ren ama Euskal Herrian izan zen aurreko astean. Eguenean Bergarara egindako bisitaldian, Peruk bizi duen egoera salatu zuen Cartolinik.

- Zela bizi izan zenituen enbaxada hartzea eta ondorengo asalto?

- Nire semea klandestinitatera pasatu zenean Perutik irten behar izan nintzen, nire familiaren kontrako errepresio handia zegoelako. Azken bederatzirteak Nantes-en, Frantzia eman ditut eta bertatik jarraitu nituen gertaerak. Enbaxada hartzeak, Peruk bizi duen egoera mundu zabalean jakitera emateko balio izan zuen. Gosea eta miseria nagusi dira Perun eta presoaren egoera benetan salatzea da. Guztira 6.000 preso politiko inguru dira hango kartzeletan

eta euren bizitzeko baldintzak penagarriak dira. Presoak askatzeko helburua zeukan enbaxada hartzeak, baina ez genuen uste guzti hau horrela amaitu behar zenik. Oso kolpe gogorra izan da. Modu pazifiko batez amaituko zela pentsatzen genuen baina Fujimoriaren gobernuaren engainu bat izan da guztia. Prozesua asalto gertatzeko besterik ez dute luzatu eta oso mingarria izan da dena.

- Orain, European, Peruko presoaren egoera salatzekeo kanpaina bati ekin diozue...

- Orain zazpi bat hila bete daramatzate familiarrek presoak bisitatu ezinik, eta bisitak eta beharrezkoak zaizkien medikamentuak aldarrikatzen ditugu. Oso kezkatuta gaude presoek jasaten dituzten baldintzekin eta Europa osoan salatu nahi

"Japoneko enbaxada hartzeak Peruk bizi duen egoera jakitera emateko balio izan du"



Felicitas Cartolini Olaso Dorrearen ondoan.

dugu Fujimoriaren gobernuaren errepresioa: Perun presoaren familiarrak ezin dira bildu ere egin eta European gauden familiarren batzordea eratu nahi dugu, nazioarteko laguntza jaso eta perutarrei indarra emateko. Batzorde sendo bat osatu nahi dugu, presoak askatu, euren baldintzak hobetu eta epaiketak berri-kusteko.

- Zelako laguntzak jaso dituzue orain arte?

- Momentuz EPK alderdiari eskerrak eman behar dizkiogu Peruko egoera salatzekeo egin di-

guten gonbidapen honengatik. Bilbon Komite Internazionalistak eta Askapena taldeekin ere izango gara [joan zen aste-bukaeran], aukera ezberdinak aztertuko ditugu.

- Itxaropentsu zaudete?

- Peruko alderdi politiko ezberdinek, gazteriak, jubilatuek edo sindikatuek, gobernuaren jarrera salatzekeo konfiantza gehiago agertu dute azkenaldian eta OEako ordezkariak, giza-eskubideen bortxaketa aztertzekeo, Perun izan denean jendea kalera irten da. Kanpoan garenontzat pozgarria izan da MRTA-koen hilketek, gutxienez, jendeak kontzientzia hartzekeo balio izan dutela ikusteak.

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxe: 76 20 29

Ramon Mendibil Seat-600aren azken modeloetako batekin.
 Maria Isabel bere emazteak egunero erabiltzen du.



Auto zaharrak

Ondo zaindutako ibilgailuak

Komunikabideetan iragartzen dizkiguten kotxe zoragarrien bertutei kaso larregi egin bari, badira euren betiko kotxearekin maitasun istorio bitxiak mantentzen dituzten gidariak ere. Bergaran ere "ibildide luzeak" kotxeak daude eta, San Kristobal bezperan, kotxe gidari erromantiko hauen gorabeherak jakin nahi izan ditugu.

Luziano Larrañagak gogoan du gidatze karneta lortu zueneko fetxa. 1939ko abenduaren 28an izan zen, Gasteizen, eta bost duro ordaindu behar izan zituen karneta eskuratzeagatik. Orditik hainbat kotxe izan ditu: Studebaker motorra zuen Ersquine modelo edo lanerako erabiltzen ohi zituen Citroen B14a edo Tempo Onieba furgoneta. 1976tik

Julian Elkoroberezibar bere suhiak emandako Seat 850a (SS-67325) erabiltzen du. Kotxeak 31 urte ditu eta Luzianok azken 20 urtetan 80.000 kilometro inguru bete ditu; "lehen askoz ere gehiago ibiltzen ginen kotxean emaztea eta biok. Orain denboraldi luzeetan geldi izaten dugu garajeetan sartuta baina orain, uda partean, Bolura edo Gorrila aldera ia egunero irte-

tzen gara". Luzianok 83 urte ditu eta urtero berriztu behar izaten du gidatze karneta; "egia da hemen inguruan ibiltzeko badu ere kotxea beharrezkoa zaigula, baina piskat aspertuta nago kotxean ibiltzeaz. Ez dakit merezi duen, gero eta gutxiago erabiltzen dugu eta segurua eta urteroko azterketa tekniko ordaindu beharra daukagu". Oraintsu, batera berria jarri dio Lu-

zianok kotxeari eta horrez gain dagoeneko lau aldiz margotu du, *"titanlux-arekin eta brotxa zabarrarekin"* bere hitzetan. Kotxea garajea gordetzen du; *"barruan lo egiten duelako bizi da kotxea"*. Luziano gidari bikaina dugu eta Maria Loidi bere emazteak azpimarratzen duen moduan *"denbora bonetan ez du txoke bat ere izan"*. Kotxearen atzealdean, aseguru etxeak emandako pegatinak honela dio: *"Al volante va un conductor seguro"*.

Gidari beteranoena

Gidari trebea izan da baita Toribio Aranguren. Hamabost urte zituenerako bazekien konduzitzen eta Zerrajeran 44 urte eman zituen txofer lanean. Lanean Saurer, Ford 8 eta Ford Hercules kamioiak gidatu zituen eta, besteak beste, Valladolideko Fasa-Renault enpresara errobera lllantak eramaten zituen garai bate-

an. Joan zen urtera arte herriko gidaririk beteranoena genuen Toribio (88 urte) baina aurrean ez diote karneta berriztu. Bere hitzetan, *"disgustorik haundiena eman didate. Gustora ibiliko nintzen oraindik ere kotxea-ekin"*. 1970eko apirilean 65.000 pezetan erosi zuen bigarren eskuko Seat 850a (SS-95261) modu ezinhobean dago eta ez da harritzekoa Pedro Luis bere semea mekanikoa dela kontutan izanik. Toribiok izan duen kotxe bakarrak 130.000 kilometro eginak dauzka eta bere ustez bidaiarik luzeena Donostiara egingo zuen. Joan zen urtera arte, eguraldi ona egiten zuen bakoitzean, Jubilatuetara kotxean hurbiltzen zen baina orain hanketatik gaizki dabil eta kopiloto postuarekin konformatu beharra dauka. Pedro Luis-ek kotxea berrizteko asmoa dauka; *"kotxea oso ondo dago; azterketa teknikoan ez du sekula arazorik izan eta behin ere ez dugu kotxea margotu*



1928tik zuen karneta ez diote aurrean berriztu Toribio Aranguren.

beharrik izan. Baina denbora hartzen dudanean ikutu batzuk emango dizkiot. Kotxe hau ez doa

txatarrera..., ezta pentsau ere!!"

Jabier Oizarzabalen Seat 850 kotxeak (SS-5638-A) zilarrezko ez-taiak betetzen ditu aurrean. Hirugarren eskuko da Jabierren kotxea; *"izatez Isabel Aperribairena zen eta nik, berriz, Rosa Mari Belastegiri erosi nion"*. Aurretik beste Seat 850 bat (SS-99292) eduki zuen Jabierrek; *"hura 1970ean erosi nuen 80.000 pezetan eta 1986ra arte eduki nuen. Behin, lanera nindoala, aberiatu egin zen eta Fernando Txurrukak konpontzerik ez zuela merezi esan zidan. Orduan erosi nuen hau, 22.500 pezetan. Zabarrari pieza baliogarri guztiak kendu nizkion eta 1.000 pezeta eman zidaten kotxearen truke"*. Jabierrek bi kotxe



Luziano Larrañagak, uda partean, ia egunero ateratzen du kotxea andrearekin bueltatxo bat emateko.

KOTXE ETA MOTOZALE AMORRATUA

Agustin Lazpiur kotxe eta moto zaharren bildumazalea du. Bilduma benetan deigarria dauka Agustinek bere tailerlean: kotxeei dagokionez, Opel LG-12 modeloa (1933 urtekoa, Jose Telleriarte taxistarena zena), Renault 4-4a (1957), Seat 600 D kotxea

(Tomas Unamunok oparitu ziona) edo Chrysler 77a (1928koa); eta motorren kasuan, BSA Round Tank motorra (1924), BSA Sloop-a (1930), zazpi bat Montesa (horietako bat bere osaba Bixenterena izandakoa), Guzzi bat, Altuna garajeak erregalatu zion Lubensu-a, Lambretta bat, Triumph markako beste hiru, Harley Davidson estatubatuarra (filtroan honela dio: "Live to ride. Ride to live. Eagle spirit"), Bultaco bat eta beste hainbat. Agustinen hitzetan, "mekanikarako zaletasuna familiatik datorrik: aitajaunak eta osabek ere afizio handia zeukaten eta dena pegatu egiten da, badakizu. Beti izan gara kotxe eta motorzaleak eta orain 20 bat urte horrelako modelo zaharrak

kolekzionatzeari ekin nion". Horrez gain, Agustinek berak berritzen ditu kotxe eta motorrak; "zapatu arratsaldetan eta domeka goizetan laupabost lagun biltzen gara tailerlean eta beti egoten da lana. Orain Chrysler 77arekin ari gara lanean". Agustinen arabera, "norberak ibilgailuak berritzu ezker ez da garestia, baina kontaktoak edukitzea oso inportantea da. Pieza zaharrak egitera dedikatzen diren enpresak ere badaude eta hortan ingelesak dira maisuak. Asko gustatu behar zaizu eta lan asko egin baina zaletasun handia dago". Egindako lana disfrutatzeko aukera ere izaten du Agustinek noizean behin, Nuvolari elkarteak antolatzen dituen kotxe zaharren konzentrazioetan; "normalean andrearekin joaten naiz. Motorrak ez zaizkio gustatzen baina kotxean oso pozik joaten da. Oraitu Euskal Herriko Itzuliko bi etapatan izan gara, Gasteiz-lruñea eta Iruñea-Donostia ibilbideetan. Normalean Opela eramaten dut; jende dexente elkartzen gara eta harreman handia daukagu gure artean; baita Euskal Herriatik kanpoko bildumazaleekin ere". Aurtengo San Martin jaietan edo datorren urtean, Bergaran, ibilgailu zaharren konzentrazio bat antolatzeko asmoa dauka Agustinek.



dauzka orain, Renault-12 bat eta aipatutako Seat 850-a. Azken honekin 8.000 kilometro inguru egin ditu, kotxeak 129 mila Km. inguru bete dituen arren; "herri barruan ibiltzeko erabiltzen dut bakarrik, errekauek egiteko etabar. Egunero arrankatzen dut kotxea eta Bolura, Poligonora edota ortura joateko erabiltzen dut. Biajerik luzeena Arrigorriagara egin nuen behin, kotxearen azterketa tekniko egite-

ko. Altos Hornosera joateko ere Zubiaurretik joaten naiz, ez naiz barientera sartzen. Kotxea garajejan sartzen dut egunero eta mantentzeak ez du asko balio, aberia fuertetik ez du izan eta erosi nuenetik aberia guztiak neuk konpondu ditut, Txurrukaren bitar-

tez askotan. Mekaniko ona naizen? Ni elektrizista naiz eta mekanikako gauza gutxi dakit baina inportanteena gasolina sartu eta olioaz zaintzea da". Badu kotxearen inguruko anekdotarik ere; "1979ko udan Benidormera joan ginen, emaztea eta biok hiru seme-

alabekin. Bidean kotxe berotu egin zen eta kale fakzioari eman behar izan nion errefrigerazioa hobetzeko. Heldu bai baina izerditan heldu ginen Benidormera...". Orain lotsa piskat ematen diu urtero azterketa tekniko egin behar izateak; "sekulako kotxeak egoten di-

“Sekulako kotxeak egoten dira azterketa teknikoa pasatzen eta lotsa piskat ematen dit kotxe zaharrarekin joateak” JABIER OIARZABAL

azterketa pasatzen eta nik gaizki pasatzen dut kotxea eramatea suertatzen zaidanean. Normalean iluntzean, berandu joaten naiz jendeak ez ikusteko". Jubilatu bitartean kotxearekin jarraitzeko asmoa duela esaten digu Jabierrek.

Azkenetako 600a

Seat 600 ezaguna 1957 urtean atera zen merkaturara eta berehala Estatu osoan kotxerik ospetsuenetakoa bihurtu zen. Oraindik ere badira kotxe hauen konzentrazioak antolatzen dituzten nostalgikoak. Azken 600 modeloa 1973ko abuztuaren 3an irten zen Seat-eko produkzio katetik eta Edurne, Ramon Mendibilen arrebak erositakoa (SS-4990-B) egin zen azkenetakoa da. Kotxeak 24 urte 1/2 dauzka dagoeneko eta denbora guzti honetan 135.500 kilome-



Jabier Oiarzabalek errekauek egiteko edo ortura joateko erabiltzen du egunero bere Seat 850a.

tro inguru egin ditu. Ramonek argitzen digunez, "aurretik beste 600 bat izan nuen nik, Cadizeko matrikula zuena. Garai baitetan oso popularra zen 600a eta lehenengo

barekin Pirineotaraino ere joan ginen. Orain daukaguna arrebarena zen eta Edurne eta Maria Isabel nire andrearen artean egin dituzte kilometro guztiak, Edurnek


Arrasatera joan-etorria egiteko eta orain Maria Isabel lanera, Antzuolara, joateko. Etxe inguruan ibiltzeko oso ondo dago". Ramonen arabera 600a oso kotxe erreza da zaintzeko; "edozeinek egin ditzake mantentzen lanak. Delkoa edo bujiak aldatzea oso erreza da eta ez du aparteko arazorik ematen. Pintura piskat eman behar izan diot berdoitu baino lehen baina gauza gutxi. Oso automobil gogorra da eta nekeza da kotxea bidean geratzea".

Hainbeste denbora euren izan eta gero, kotxea asko apreziatzen dute; "kariño espeziala diogu bai, beti etxean egon delako. Etxeko guztiek ere lehendabiziko kotxe praktikak 600-arekin egin dituzte eta oraindik ere bere funtzioa betetzen du; pena ematen digu kotxea kentzeak". Bide ertzean geratu nahi ez duten kotxeak...



Argazkian, Jabier Oiarzabalen lehendabiziko Seat 850a Arantzazun bedeinkatzen.

Zer egin beharko litzateke San Martzialen urte osoan geratzen diren mahaiekin?



Gema Lete

Udala arduratu beharko litzateke horretaz eta kentzea izango litzateke onena. Gutxi batzuk laga eta besteak kendu. San Martzialera urtean behin joaten naiz bakarrik.




Jose Migel Etxeberria

Jendea urtean zehar joaten da San Martzialera eta nik bertan lagako nituzke, erabiltzeko aukera izateko. Urte osoan San Martzialera pare bat aldiz joaten naiz.



Nerea Urrutia

Ez dakit, onena izango litzateke norbera arduratzea mahaia kentzeaz eta hurrengo urtean berriz montatzea.



Felipe Unamuno

Kentzea izango litzateke onena baina jendeak ipini bai baina kendu ez du egiten. Ingurua garbi egon behar da urte osoan. Ni pare bat aldiz joaten naiz urtero.



Begoña Azkargorta


Batzuk eskas samarrak egoten dira baina txukunak aprobetxatu daitezke urtean zehar. Ez daukat urtean zehar joateko ohiturarik, bakarrik San Martzial egunean.



Jabier Lazkano

Aspaldian joateke nago San Martzial egunean. Urte guztian lagata, mahaia gehienak apurtu egiten dira baina txukun daudenak laga daitezke.


Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Izarar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

 **Matxiategi Elektragintza C.B.**
ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA
Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

 **Biko**
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrean. Tf. 76 71 19

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00
☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

 **LAKET**
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA



Zerua nazioko erreflexioak

Oso lanpetuak zeuden trumoiak laino berriei bizia eman eta zeruko zelai urdinetara jolastera bidaltzen. Aitona Eguzkiak bere izpi dizdiratsuez indartsu jotzen zuen eta lainotxo jaio berriak sokasaltoan jolasten hasi ziren.

Lainotxo berezietako bat haizearekin urrundu zen eta Mendi Bedeinkatuarengana joan zen hitz egiteko asmotan:

- Ama Mendixa, zure basuek gaurkuan urik bia daben galdetzer a etorri naiz. Erabilgarrixa izatia biot, eta biharrezkuena zer dan ondo jakitzia hobe zala pentsau dot.

Mendi Bedeinkatuak, hori entzutean, ura bazegoela erantzun zion, baina erabilgarrixa izan nahi bazuen, beste modu batean izaterik bazuela azaldu zion. Mendi Bedeinkatuak gizakien galdera eta pentsaerak ulertzen erakutsi zion lainotxoari. Hori guztia benetan jostagarria iruditzen zitzaion Lainotxoari, gizakien galdera eta kezkek bereganatu eta ideia ugari erakusten zituzten forma desberdinak hartzen baitzituen. Eskaturiko erantzunak ideia hauekin erlazionatzen ziren.

Egunaren buruan, lainotxo Mendi Bedeinkatuari hurbildu zitzaion buruhauste ugari sortzen zizkion beste galdera bat egitera:

- Ama Mendixa, egun osuan gizakixendako erantzun erabilgarrixak lantzen ibili naiz, eta oin galdera oso inportantia daukat zuri itxeko:

Nola lortu geinke gizakixek gora begirau ta atentziñua prestatzia?

Iñaki GABILONDO



Gernika

"El Guernica" Gernikara dio Garaikoetxeak; Arzalluzek berriz, gogorragoa: Guggenheim museoan izatea hil ala bizikoa dela, euskaldunona balitz bezala. Lekutaraino iritsi dira espekulazioak: eskubide osoa dugula, kultur arlorako beharrezkoa dela etabarrekoak irakurtzen ditugu egunkarietan.

Picassok, Errepublikako Gobernuaren eskaria onartu zue-nean oso konprometitua zegoen Errepublikaren defentsarekin eta Espainiako ondare artistikoak gerraren txikizioetatik babesteko ardura hartua zeukan. Gernika bonbardatzeak hunkitu zuen bere sentimendua; bazuen zertaz margotu eta buru-belarri ekin zion pintatzeari, helburu garbi batekin: gerra guztietan errugabeko biktimek jasaten dituzten gogorkeriak salatzea. Berak, pintura erraldoi horrekin, gerra denek dakartzaten sufrimentua, dolua, zentzugabekeriak erakutsi nahi zizkigun.

Ez zuen inolaz ere, Gernika hiriar buruzko erreferentzia zehatzak egiteko asmorik, aitzitik, bertan gertatutako basakeriak barne-barnean zuen faszismo guztiaren kontrako gorrotoa aldarrikatzera bultzatu zuen. "El Guernica" mihisegaineko olio bukatu bezain pronto sinbolo bilakatu zen. Oraingo honetan "sinbolo" hura politikoek erabiltzen dute beraien arteko betiko desadostasunak azaltzeko. Halere, oso argi ez dagoena zera da, koadroa ekartzearekin Guggenheim museoak duen kosto ekonomikoa ontzat emango al dugun euskaldun guztiok. Aizue, ez gara tonutuak! Edozein modutan, "El Guernica" k dagoen lekuan dagoela ere, jarraituko du bere zentzua izaten, are gehiago, Bilbon ikusteko aukera bagenu askoz hobeto, poztuko nintzateke.

Maite MOZOS

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejua
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Argazkiak: J.A. MIGURA



■ **Eskulan erakusketa**

Bedelkar herriko dendarien elkarteak antolatuta, zapatu goizean, **San Pedro bezperan**, eskulan feria ikusgai izan zen herriko kaleetan. Herriko hainbat taldek euren lanak erakutsi zituzten Plazan, Simon Arrietan eta San Pedro kalean eta, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, feria arrakastatsua izan zen, herritar ugari hurbildu baitzen jarritako **20 bat postuak** ikustera. Bertan zeramika lanak, saskigintzakoak, bordatuak eta beste lan bikain batzuk egon ziren ikusgai. Bestalde, zapatu gauean Plazan egitekoa zen **rock kontzertua** Pol-Pol tabernan egin behar izan zen euriagatik eta **Fly shit** eta **Iskanbila** taldeek jende dexente erakarri zuten.

■ **Postal berriak**

Joan zen eguakitzean ireki zen Turismo Bulegoa eta irailaren lehenera arte izango da zabalik. Astegunetan 11:30etatik 14:00etara eta 16:30etatik 19:30etara egongo da zabalik eta domeka eta jai egunetan, berriz, 11:30etatik 14:30etara. Nis enpresak izango du Turismo Bulegoaren ardura eta **Ainhua Agirre** elorriotarra eta **Nuria Gomez** angiozartarra egongo dira bertan. Aurten 10.000 postal berri kaleratu dira (argazkian) eta bertan



Bergarako sei irudi agertzen dira. 9.000 postal Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxako hainbat jatetxe, hotel eta turismo puntutan banatu dira eta gainontzekoak Bergarako Turismo Bulegoan laga dira.

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75



■ **San Martzial ospatzen**

San Joxepe elkarteko kideek San Martzial eguna ospatu zuten astelehenean San Martzialen bertan. Herriko jubilatua goizeko 10ak aldera igo ziren San Martzialera (batzuk

oinez, beste batzuk autobusez) eta eguerdiko mezaren ostean, **Jubilatuen abesbatzaren emanaldia** izan zen. Jarraian **salda, txorizoa eta ardoa** banatu ziren eta ondoren jubilatuek beraiek prestatutako **bazkaria** izan zen ermitako arkupetan. Guztira, 55 lagun inguru bildu ziren eta, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, guztiek primeran igaro zuten. Era berean, ohiturari jarraituz, **astelehenean 7:30etako letanian** jende dexentek hartu zuten parte. Letanian izan zirenek meza entzun eta ondoren txokolate beroa dastatzeko aukera izan zuten.

■ **Urrezko eztaiak**

Martin Roman eta Julia Maganez senar-emazteek euren ezkontzaren **urrezko eztaiak** bete berri dituzte. Aceuchal (Badajoz) herrikoak izatez, Julia eta Martin orain 32 urte etorri ziren Euskal Herrira; Antzuolan urtebete eman ondoren, azken 31 urtetan Bergaran bizi dira. Ezkontzaren urrezko eztaiak ospatzeko, larunbatean, ekainak 28, bazkaria egin zuten Arantzazuko bidean, Soraluze hotelean. Zorionak bie!!



Zertan dihardute ba?



Jose Luis Feo Pol-Pol Argazki Taldeko 35 urteko kideak Murgia eta Orduñako argazki rallyak irabazi berri ditu. Murgiakoa 52 argazkilari izan ziren lehian eta Orduñan, berriz, 130 partaideren artean nagusitu zen bergararra. Jose Luis oso pozik itzuli zen argazkilari zein publikoaren aldetik aipatu rallyek jasotako erantzunagatik. Argazki lehiaketak baino rallyak gustatzen zaizkio gehiago Jose Luisi eta urtean 10 bat argazki rallytan parte hartzen du. Domekan Zaldibarren hasi eta 6 rallyz osatuta dagoen *Argazki bidez* zirkuituan parte hartzeko asmoa dauka.

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

ZUBIETA
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Jesus Mari Arriaran

Jesus Mari Arriaranek dultzaina jotzen du biharko buruhaundi eta erraldoein kalejira alaituko duen Kobok taldean. Horrez gain, oboe irakaslea dugu Musika Eskolan eta Udal Musika Banda, Orkesta Sinfonikoa edo Donostiako Orkestako partaidea da.

- Domekan burdiarekin igoko zara San Martzialera?
- Ez, eguerdi aldera edo...
- Bezperan, juergarik bai?
- Batzutan egiten dut baina lasai.
- Juergazalea zara?
- Piskat bai.
- San Martzial, goizez ala arratsalde?
- Bazkalosteko giroa nahiago.
- San Martzial eguneko gauzarik onena?
- Sortzen den giroa.
- Eta txarrena?
- Hurrengo eguneko bixamona.
- Zein menu izango duzue?
- Orain arte mahairik ez dugu jarri, bokadiloa eramaten dugu.
- Bokadiloa prestatuta ala erositakoa?
- Gertautakoa.
- Sukaldari ona zara?
- Gustatzen zait sukaldean ibiltzea,



“San Martzial bezperan juerga egiten badut ere, lasai izaten da; politena sortzen den giroa da. Era guztietako musika atsegin dut eta Euskadiko Orkesta Sinfonikoan joko nuke gustora”

defenditzen naiz.

- Janaririk gustokoena?
- Haragizalea naiz, brasan egindako zerbait.
- Eta edari bat?
- Bazkari on batekin ardo beltza eta juergan garagardoa.
- Domekan, bazkalostean, sokatiran bai?
- Ikusten..., barre batzuk botatzen.
- Erromerian dantzatuko duzu...
- Bai, tokatzen denean bai. Baina ez naiz dantzazalea.
- Zer deritzozu Irungo alardearen polemikari?
- Ni denak batera ateratzen saiatuko nintzateke.
- Hobby bat?
- Dultzaina eta bizikletan ibiltzea.
- Zelako musika atsegin zaizu?
- Denetik, momentuaren arabera.
- Zein musika taldetan joko zenuke gustora?
- Euskadiko Orkesta Sinfonikoan.
- Filme bat?
- Ikusitako azkena, *Solo se muere dos veces*.
- Aktore bat?
- Clint Eastwood.
- Idazle bat?
- Bukowski, Lovecraft..., zientzia fikzioa ere gustatzen zait.
- Udan, plaia ala piszina?
- Plaia.
- Zenbat ordu egiten duzu lo?
- Zortzi bat.
- Oporretan, zer?
- Italiara Orkestarekin eta gero hemen, Ondarrun eta inguruan.

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala, 5 ☎ 76 53 09

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

ETXEBIZITZA

Estudioa alokairuan Benidormen. ☎ 76 23 43.

Pisua salgai Zubiaurren (ganbararekin). ☎ 76 49 30.

Pisua eta garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

Pisua salgai Masterrekan. ☎ 76 08 67.

Pisua alokairuan Laredon. ☎ 76 13 86 (gauzez).

Pabiloi industrialak alokairuan. 500 m². ☎ 76 43 37.

Pisua salgai Frontoian. 160 m². ☎ 76 24 42.

Pisua salgai Masterrekan. Berriztua. ☎ 76 08 67.

Garajea saldu edo alokairuan da Santa Marinaran. ☎ 76 47 27.

Pisua alokairuan udan Donostian, Amara auzoan. ☎ 76 31 79.

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 909 39 47 03.

Pisua alokairuan hartuko nuke Bergaran. ☎ 76 06 16.

Etxea salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 23 84.

Apartamentua salgai Laredon. ☎ 76 44 34.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 50 50.

Pisua salgai Barrenkalen. ☎ 76 50 97 (gauzez).

DENETARIK

Vitus bizikleta salgai. ☎ 76 08 21 (20:30-22:00).

Renault 5 kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauzez).

Txakurkuma opari, mastin eta belgiar artzain nahasketa. ☎ 76 47 45.

Peugeot 504 kotxea (NA-T) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 35 09.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Kawasaki Zephir motorra (750 cc.) salgai. Egoera onean. ☎ 76 23 43.

Kawasaki GPZ motorra (400 cc.) salgai. Kilometro gutxirekin. ☎ 76 08 97.

Peugeot 205 kotxea (SS-AG) salgai. ☎ 71 61 21.

Kotxeko irrati ekipoa salgai. ☎ 76 04 40 (gauzez).

Litera bat (90 neurrikoa) salgai. ☎ 76 15 06.

Yamaha Diversion motorra salgai. ☎ 76 36 03 (iloseba)..

Midi furgoneta eta karpina salgai. ☎ 74 27 48.

Renault 21 kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 29 98.

LANA

Ingeles klaseak uztailean (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Neska bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 76 15 24.

Etxeko lanak egiten ditut. ☎ 76 32 58 (Ana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

UBIko marrazki teknikoko maisua behar da. ☎ 765167.

Pertsona bat behar da abuztuan elkarte bat garbitzeko. ☎ 76 59 15.

Klase partikularrak udan. ☎ 76 30 35 (Unai).

1. eta 2. hezkuntzako klaseak uztailean. ☎ 76 42 08.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 04 34.

Tabernaria lanerako gertu. ☎ 75 20 69 (Kristina).

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 907 92 35 63.

Matematika, fisika eta kimika klaseak uztailean eta abuztuan. ☎ 76 70 40.

Irakasle bat behar da 8 eta 14 urteko bi gaztetxori egunero bi orduz klaseak emateko. ☎ 7615 76.

Matematika, fisika, kimika eta diedriko klaseak uztailean. ☎ 76 24 31.

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako (irailetik). ☎ 76 54 73.

Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko neska euskalduna behar da. ☎ 76 04 56/76 58 20 (Paki).

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma


Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

LARREA**TABERNA**

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

POL-POL**Taberna**

☎ 76 07 78



F G U R E N
M I N T U R A K

pinturak eta paperak

Irala kalea, z/g • 20570 BERGARA
Tf. eta faxa 76 33 01

ONENA**TINTATEGIA**

Barrenkale, 29 BERGARA



"Orfeoi Gazteak eskeiniko dituen piezak oso herrikoiak dira, oso abesti alaiak aukeratu ditugu"

"Bernsteinen 'Chichester Palms' izango da kontzertuko lanik nabarmenena. Oso lan erritmikoa da"

MILA ANDUEZA, ORFEOIKO PRESIDENTEA

"Datorren zapatuan Bello Portuk guretzat idatzitako lan bat estreinatuko dugu"

Bergarako Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak kontzertua eskeiniko dute datorren zapatuan, uztailak 12, gaueko 10etatik aurrera San Pedro parrokian. Mila Andueza Orfeoiko presidentearen hitzetan, "kurtso bukaerako kontzertu hau herriari eta gure bazkideei ere eskeini nahi diegu".

- Zelako erreperatorioa osatu duzue kontzerturako?

- Orfeoi Gazteak eskeiniko dituen piezak oso herrikoiak dira, oso abesti alaiak gainera. Gure ideia nagusietako bat jende gaztea motibatzea da, musika koralarengana zoazalaz piztea eta horregatik erreperatorio erakargarria eta erritmikoa lantzen saiatuko gara eta, besteak beste, *Baliaren bertsoak* (Benito Lertxundi), *Lau teilatu* (Itoiz) edo *Imagine* (Lennon) eskeiniko dira, beraien ondo ezagutzen dituzten melodiak.

Orfeoia kontzertua, berriz serioagoa izango da. Bi zati nagusi izango ditu: alde batetik Javier Bello Portuk gure-



Orfeoiak kontzertua emango du datorren zapatuan, hilak 12.

tzat espreski konposatutako *La serpiente y la lima* estreinatuko dugu (baliteke Bello Portu Parisetik etortzea egun horretarako) eta bestetik Leonard Bernstein iparamerikarraren *Chichester Palms* izeneko lana. Azken honetako hitzak Bibliatik ateratako salmo batzuk dira eta hebreoz idatzita daude. Nahiz eta obra erlijiosoa izan, oso lan erritmikoa da eta gurekin batera Musika Eskolako perkusio eta me-

taleko taldea, Iñaki Gurruixaga arpajolea, Iñigo Alberdi organo eta pianojolea eta Ander Laborda eta Julen Iñarra bakarlarriak arituko dira. Kontzertuko gauzarik nabarmenena lan hau izango da eta hori prestatzeko Musika Eskolara jo dugu laguntza eske, hemengo jendearekin egitea nahi genuen.

- Bestalde, zela baloratzen duzue aurten egindako lana?

- Pozik gaude; Errege

bezperan Donostiako Artzai oneko elizan emanaldi bat eman genuen, Donibane Lohitzunen beste bat, Zumarragako Antigua elizako lehiaketan hartu genuen parte eta azkenik, datorren zapatukoa. Nahiko urte oparoa izan da.

- Aurten ez zarete joan iaz irabazi zuten San Vicenteko lehiaketara...

- Urtero ez da posible horrelako lehiaketa bat gertatzea eta datorren zapatuko kontzertua prestatzen denbora asko eman dugu, esfortzu eta lan mordo bat eskeini diogu. Ezin da denetara heldu...

- Eta datorren urtean Orfeoia urteurrena...

- Historia aldetik ikerketa batzuk egin ondoren, badirudi 1998ko irailan Orfeoiak bere 80. urteurrena beteko duela. Hortaz, 1998ko irailetik 1999ko irailera bitartean hainbat ekitaldi antolatu nahi ditugu: emanaldiak, Orfeoia inguruko dokumentu eta argazkiak ere erreperatu nahi ditugu..., gauza asko daukagu egiteko, ikusi behar

A	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ARLOTEAK OILAGORRA	19	7	15	2
2.	MANITOU LAM	14	7	19	6
3.	MONGATXURRAK	13	7	14	9
4.	XURRUPAK	11	7	17	9
5.	EZINLEIKE	10	7	11	12
6.	ANGIOZAR	7	7	13	12
7.	LA JUVE	4	7	8	15
8.	COAR	0	7	6	33

B	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	A ZE FLAXA ETXAGI	15	7	13	2
2.	OSINTXU	13	7	13	10
3.	BILDURBAREK OPEL/LAM	12	7	17	6
4.	FACUTA	12	7	11	6
5.	MATXKATEGI	11	7	8	7
6.	THE KILLERS	5	7	5	10
7.	SHAKTALE	4	7	9	24
8.	ALTOS PORNOS	4	7	9	23

EMAITZAK

A ZE FLAXA ETXAGI-ALTOS PORNOS	1-0
SHAKTALE-OSINTXU	0-5
ANGIOZAR-EZINLEIKE	1-1
ARLOTEAK OILAGORRA-MONGATXURRAK	0-0
XURRUPAK-COAR	4-0
MANITOU LAM-LA JUVE	3-0
ALTOS PORNOS-SHAKTALE	3-6
OSINTXU-THE KILLERS	2-1
FACUTA-MATXKATEGI	2-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-A ZE FLAXA ETXAGI	0-1

PARTIDUAK

ATZO JOKATZEKOAK ZIREN FINAL LAURDENETAKO LEHENENGO PARTIDUAK ETA GAUR, EGUAKITZA, GERATZEN DIREN BESTE BIAK JOKATUKO DIRA. DATORREN MARTITZENEAN ARRATSALDEKO 7:30ETAN LEHENENGO FINAL ERDIA JOKATUKO DUTE EGUENEKO PARTIDUETAN IRABAZLE GERATU ZIREN TALDEEK. EGUASTENEAN, ORDU BERAN, GAURKO IRABAZLEEK BESTE FINAL ERDIA JOKATUKO DUTE. IRABAZLEEK HURRENGO EGUAKITZAN, HILAK 11, ARRATSALDEKO 7:30ETAN JOKATUKO DUTE FINALA. FINAL LAURDENAK 70 MINUTUTAKO IRAUPENA IZANGO DUTE ETA HORTIK AURRERAKO PARTIDUEK 80 MINUTUKOA.

Eguakitza 4 (Final laurdenak).

19:15: A ZE FLAXA ETXAGI-XURRUPAK


20:30: MANITOU LAM-BILDURBAREK OPEL/LAM

Martitzena 8 (Final erdiak). 19:30.

Eguastena 9 (Final erdiak). 19:30.

Eguakitza 11 (Finala). 19:30.

Jokoz kanpo



ANDRES ALZELAI

IKUSLEA

ASTEAN ZENBAT PARTIDU?

Aurten oso gutxi ikusi ditut klinikan egon naiz eta. Beste urte batzuetan egunero etortzen nintzen eta orain txapelketa bukatu arte egunero Ipintzara joateko asmoa dut.

ZE MAILA DUTE TXAPELKETAKO JOKALARIEK?

Oso txapelketa polita da, giro oso ona egoten baita. Sasoi honetan ez da gauza berezirik egoten eta txapelketak, behintzat, ambientea sortzen du. Orain futbolari dagokionez, batzuk primeran ibiltzen dira, baina gehienak tabernan egon beharrean Ipintzan hobeto daude.

TAKTIKOKI ZELA IKUSTEN DITUZU TALDEAK?

Ipintzan taktika egitea oso zaila da, hemen irabazteko badakizu zer ipini behar den... [ukabila estutuz].

ARBITROAK ZELA MOLDATZEN DIRA?

Arbitratzea oso zaila da eta arbitroari beti errespetatu egin behar zaio.

ORAINGO EDO LEHENGO JOKALARIARIK DIRA HOBEAK?

Oraingoak hobeak dira. Gure denboratan ez geneukan zelairik eta gure aldean oraingoak asko entrenatzen dira.

TXAPELKETA IRABAZTEKO FAVORITORIK?

Taldeen izenak ez dituz egutzen. Futbola ikustera eta ondo pasatzera etortzen naiz.

ARLOTEAK OILAGORRA GOGOR

BUKATU DA IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETAREN LEHENENGO FASEA ETA ARGI GERATU DA ORAIN ARTE IKUSI DEN TALDERIK INDARTSUENA ARLOTEAK OILAGORRA, IAZKO TXAPELDUNA, IZAN DELA. JOAN ZEN URTEKO TXAPELDUNEK DEFENSA BIKAINA ERAKUTSI DUTE, EUREI GOLA SARTZEA OSO NEKEZA BAITA. ARGAZKIAN IKUSI DEZAKEZUEN BEZELA, ARERIOARI EZ DIOTE AUKERA HAUNDIEGIRIK EMATEN, NAHIZ ETA AURREAN -JOAN ZEN OSTIRALEAN MONGATXURRAKEN KONTRA JOKATU ZUTEN- AURRELARI BIKAINAK IZAN. ATZO, EGUENA, LEHENENGO KANPORAKETAK JOKATZEKOAK ZIREN ETA AGIAN A MULTZOKO TXAPELDUNEK SUSTOREN BAT HAR DEZAKETE, PARTIDU BAKARRERA EDOZER GAUZA GERTA DAITEKE ETA.



GOLEGILEAK

BERRIGARA

SARIA

7 Gol

Gorka Davila (XURRUPAK).

6 Gol

Juan Luis Etxaniz (BILDURBAREK OPEL/LAM), Marcos Alonso (OSINTXU)

5 Gol

Igor Alberdi (MANITOU LAM), Asier Alberdi (EZINLEIKE).

4 Gol

Eneko Beistegi (ARLOTEAK OILAGORRA), Fernando Agirrebeña (ALTOS PORNOS), Iker Beitia (FACUTA).

3 Gol

Harkaitz Arana (ARLOTEAK OILAGORRA), Gustavo Abajo (BILDURBAREK OPEL/LAM), Jabi Ibarra eta Patxi Vallejos (A ZE FLAXA ETXAGI), Enrike Marzana (ANGIOZAR), Gorka Aiestaran (MANITOU LAM), Iban Etxeberria (MONGATXURRAK).

2 Gol

Iñigo Herreros (LA JUVE), Pell Iturrkastillo (MANITOU LAM), Miguel Arregi (EZINLEIKE), Andoni Arroio eta Xabi Zangitu (MONGATXURRAK), David Acosta (COAR), Ion Gallastegi (FACUTA).

TXINPARTAK

Saturraran-Deba

Beti-Busti elkarteak Saturraran-Deba piraguaz egiteko aukera eskaintzen du datorren domekan, uztailaren 13an. Irteera goizeko 10:30etan Saturraraneko hondartzan izango da eta eguerdi alderako Debara helduko dira. Ondoren, kaiak surf erakustaldia egingo dute Beti bustiko kideek. Izen-ematea 76 27 93 telefonoan.

Klubek bilera

Martitzenean arratsaldeko 8etan Udaletxean, herriko kirol elkartearen eta Udalaren arteko bilera izango da. Datorren urterako kirol instalazioen eskaerak, klubek antolatu behar dituzten jarduerak bereziak, Eskola Kirolerako dirulaguntzak eta beste batzuk aztertuko dira.

Futbito partidu ederrak zapatuan kiroldegian

Lagunak Futbito Elkarteak antolatuta bihar, zapatua, arratsaldeko 5etatik aurrera futbito partidu interesgarriak jokatu dira Labegaraieta kiroldegian. Lehenengo partiduan Lagunak taldeko emakumezkoen taldeak Legorretako taldearen kontra neurtuko ditu indarrak.

Bergarako taldea, urtean zehar Migel Altuna Institutuan jokatzeko ari den txapelketako jokalariek onenek osatuko dute. Entrenatzailea, Mikel Fernandez izango da eta Berrigarari adierazi dioenez, *"Legorretakoak ez dituzte ezagutzen, baina Gipuzkoako Areta Futbol Federaziotik esan digutenez onak dira. Gure taldeak ere maila ona du eta espektakulo polita ikusiko dugula uste dut"*. Hona hemen hauek osatuko dute taldea: Ainara Garitano, Eider Ruiz, Giomar Fernandez, Usue Lazkano,



Emakumezkoen selekzioak Legorretaren kontra jokatu du.

Silvia Valor, Ainhoa Larrañaga, Agurtzane Lete, Saioa Bolibar, Olatz Bideluze eta Nagore Santos.

Nesken partiduan ondoren, 18:30etan, mutilen partiduak jokatu dira. Lagunakeko futbito taldeak Bilcoinen aurka jokatu du. Taldea jokalariek hauek osatuko dute: Juan Luis Etxaniz, Asier Elorza, Ibon Agirre, Gorka Aies-

aran, Jabier Carrascosa, Aitor Anton, Alberto, David Romero, Juan Carlos Prieto eta Iñigo Pagaldai izango dira.

Datorren urterako talde federatua osatuko da Bergaran. Taldearen izena Lagunak izango da eta Gipuzkoako 2.B mailan jokatu du. Taldea 12 jokalariek osatuko dute eta entrenatzailea falta da.



Gipuzkoako txapelketa

Igoitz Gabilondo txirrindulariak lehen mailako kadeteen Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen joan zen domekan Oiartzunen jokatuak lasterketan. San Blaseko txirrindulariak esprintean lortu zuen garaipena. BERRIGARARI adierazi dioenez, *"oso pozik nago lortutako garaipenarekin. Domekan Zarautzen denboraldiko azkenengo lasterketa jokatu da; ea orduan ere irabazten dudana"*. Gabilondok Euskadiko txapelketan bigarren postua lortu zuen eta Oiartzuneko 50 kilometroko lasterketan tropeleko txirrindularirik azkarrenetarikoa dela erakutsi zuen. Izan ere, orain arte jokatuak lasterketa ia denetan 10 lehenengoan artean bukatu du.

Futbito
NESKEN
TXAPELKETA

■ **EMAITZAK**

Blue Star-LTB. 7-2
 Potzu-Burdinezko Damak. 5-0
 Gu geu-PWA. 8-0

■ **PARTIDUAK**

Power Rantxeras-Potzu
 Astelehena. 19:00. M. Altuna.
Gu Geu-Burdinezko Damak
 Astelehena. 20:00. M. Altuna.
Blue Star-PWA
 Eguena. 19:00. Miguel Altuna.
Power Rantxeras-Nahikari TK
 Eguena. 20:00. Miguel Altuna.
PWA-LTB
 Zapatua (uztailaren 12an).
 12:00. Miguel Altuna.

■ **PENALTIAK**



Jasone Larrañaga
POTZU ETA ZAPABURUAK

ZEIN DA TXAPELKETAKO

JOKALARIRIK ONENA?

Usue Lazkano.

ETA TALDEA?

Gurea.

ZER POSTUTAN GUSTATZEN

ZAIZU JOKATZEA?

Atzealdean jokatzten dut.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Fernando Redondo.

DE PEDRO ALA ALKIZA?

De Pedro.

BESTE KIROLIK EGITEN DUZU?

Ez.

■ **SAILKAPENA**

1. Power Rantxeras. 33 puntu.
2. Potzu Ta Zapaburuak. 29.
3. LTB. 28.
4. Gu geu. 20.

Mireia Markiegi

Igeri egiten erakusten

Udarekin batera, Agorrosingo igerilekuak, eguraldi ona egiten duenean, behintzat, jende bez betetzen dira. Halaber, udalak antolatzen dituen igeri ikastaroetan jende askok parte hartzen du. Ikastaro horien berri izateko Mireia Markiegi monitorearekin hitz egin dugu.

- **Zelakoak dira udako igeri ikastaroak?**

- Adinaren arabera bantzen ditugu. Ni 3 eta 4 urteko haurrekin nabil eta gehienbat urari beldurra kentzen saiatzen gara. Horretarako jolasak egiten ditugu eta poliki-poliki hasten gara, urarekin kontaktoa har dezaten.

- **Zein da igeri egiten hasteko adinik egokiena?**

- 3 eta 4 urte izatea da egokiena. Txikiagoek ez digute ulertzen eta zailagoa da. 3 eta 4 urterekin ez dute igeri egiten ikasten. Halere, adin horretara arte, ura ez dute eza gutzen eta batzuk errezen hasten dira uretan ibiltzen; beste batzuk, berriz, beranduago hasten dira.

- **Noiz hasten dira haurrak igeri egiten?**

- 5 urterekin. Igerileku txikian hasten gara, eta uretan burua sartu, arnasa hartu eta begiak zabaltzen dituztenean, igeri egiten hasten dira.

- **Haurrak gurasoen aurrean negarrez hasten direnean, zer egiten duzu?**

- Guretzako onena haurrak guraso barik, bakarrik etortzea da. Batzuk

ulertzen dute eta joan egiten dira. Beste batzuk, berriz, geratu egiten dira eta haurra gurasoen pendiente izaten da eta horrela monitoreari ez diote kasu handiegirik egiten eta ikasteko denbora gehiago ematen dute.

- **Nagusiekin prozesu berezirik jarraitzen duzue?**

- Antzerako prozesua izaten da. Nagusiei erakustea zailagoa izaten da, baina ahaleginduz gero, denek ikasten dute. Nekezena beldurra kendu eta konfidantza hartzea

da. Halere, igeri egitea autoeskolara joatea moduan da, gero igerian egiten ez baduzu ahaztu egiten da. Ondo ikasteko norbera bere kontura aritu behar da.

- **Udan jendea ondo portatzen da?**

- Danetik dago, baina orokorrean ondo portatzen dira. Denaden, jende asko ez da dutxatzen uretan sartu aurretik eta hori egitea oso garrantzitsua da gorputza egokitzeko. Bestela tenperatura aldatu egiten da eta arazoak izan daitezke.



"Uretan sartu baino lehen dutxatu egin behar da".

"Hasieran, beldurra galdu eta konfidantza hartu behar da"

San Martzialak

San Martzialeko erromeria ospatuko dugu domekan. Lagun eta senide artean eguna pasatzeko aukera ederra izango da. Guraso eta seme-alabak, gazteak eta zaharrak, guztiak biltzen dira San Martzialeko zelaietan. Egun majikoa da. Bergararontzat urteko jairik maitatuena.

San Martzialak aspalditik ospatzen dira eta aste honetan aspaldiko bi argazki ekarri ditugu sail honetara. **Goikoa** 1953. urtekoa da eta Juanito Muniategik ateratakoa da. San Martzialeko zelaietan lagun kuadrila ikus dezakezue, ardo barrika eta guzti.

Honako hauek dira erretratuan agertzen direnak, ezkerretik hasita.

Goian: Ion Ezpeleta, Jabier Garate, Jose Antonio Moñux, Iñaki Agirre, Joseba Linazisoro, Juanito Muniategi, Jose Maria Masach eta Julian Aiastui.

Behean: Ramon Balencia, Luis Larrañaga "Kikio", Gurutz Arrieta eta Juan Suinaga.

Beheko argazkia orain dela urte batzuk antolatzen zen sukaldaritza lehiaketakoa da. Erretratu orain dela 25 bat urtekoa da eta Migel Mendibil, Joseba Sotil, Jabier Mendizabal "Surra" eta Floren Ruiz agertzen dira karakolak gertatzen, atzealdean herritar ugari dituztela. Karakolak ederrak egongo ziren, ez daukagu horren zalantzarik, Migelen ondoan dagoen mutikoaren aurpegiak hori ez erakutsi arren.



Argazkia: Juanito Muniategi



Argazkia: Migel Mendibil

Industria hornikuntzak **UNIFE** Industriaren alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
 Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Iritsi da uda!
% 30-50eko beherapenak

Marga jantzidenda
 San Pedro, 20 BERGARA
 Tf. 76 05 37

ARTISAUTZAKO IZOKIA

GOXO-TOKI
 D. Irala, 3 - Tf. 761235
 Mabiategi, 34 - Tf. 762337
 BERGARA

BERGARAKO OSASUN gida

■ ALBAITARIAK:

• ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19	Zurradero, 6 behea	☎ 76 70 67
• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAICO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

■ BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

■ DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

■ DERMATOLOGOA:

• GARCIANDIA CRISTINA	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39
-----------------------	---------------------	------------

■ FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Artekalea 1, 1H	☎ 76 43 71
---	-----------------	------------

■ GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

■ MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• PAYROS AITZIBER	Bidekurutzeta, 46 behea	☎ 76 52 62
• ETXEBERRIA ANA	Errekalde, 6 behea, ANTZUOLA	☎ 76 60 13

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

• BENITO ISABEL	Bidekurutzeta 46, behea	☎ 76 52 62
-----------------	-------------------------	------------

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

• OXIRONDO KONTSULTATEGIA	Boni Laskurain 2, behea	☎ 76 20 50
---------------------------	-------------------------	------------

■ PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

■ PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerria	☎ 76 26 64
--------------------	---------------------------------	------------

■ PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76

■ REUMATOLOGIA:

• MORAGUES CARMEN	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39
-------------------	---------------------	------------



BEHER APENAK!

UNITED COLORS
OF BENETTON.